

ibilaldiak

Urriak 28-29

ARABA

Laudio (Goikogane) • 20. Lau-dioko Harana ibilaldia. Tel: 94-6725021.

BIZKAIA

Bilbo (Aldatz Gora) • Arlaban mendatea, Urkiolako menda-tea zeharkaldia. Arangio eta Anboto igoko dira besteak beste. Irteera 07:30ean.

Bilbo (Mendizale Zoroak) • Batxikabo (1.173 m), Kueto.

Bilbo (Juventus) • Santa Age-da, Urraki, Ernio, Gazume, Iturrioz.

Bilbo (Deustuko Mendizaleak) • Espiguete, Curavacas.

Lemoa (Ganzabal) • Inguruko beste taldeekin batera Gor-beiara irteera. Bikotz Gane, Pagomakurre, Arraba, Ubi-dea. Tel: 94-6313009.

Sestao (Alpino Club) • Urkilla, Aizkorri, Aitxuri, Arbelaitz, Artzanburu, Arantzazu.

Sodupe (Gallaraga) • Arrasa-te, Murugain (778 m).

GIPUZKOA

Andoain (Euskalduna) • Este-renzubi, Iramendi, Zerkupe, Beherobi. Tel: 943-592232.

Azpeitia (Lagun Onak) • Aitzu-lora (Araotz). Gaztetxoentzat goiz ibilaldia. Irteera goizeko 8:30etan. Tel: 943-812025.

Eibar (Klub Deportiboa) • Miko-logia jardunaldiak.

Hernani (Mendiriz Mendi) • Gaztetxoentzat asteburu oso-ko egonaldia Artikutzan. 20 eta 35 gazterentzako lekua izango da. Informazioa: 943-332745.

Legazpia (Izadi Zaleak) • Aitzo-rratz (Arlaban). Tel: 646-629552.

Ordizia (Mendizaleak) • Gipuz-koako Mendizale Federakun-dearen XIV. Ibilaldi Neurtua. Ibilaldia Ordiziatik abiatuko da goizeko 08:00etan. Bost bat orduko iraupena izango du txangoak. Informazioa eta izen emateak: 943-805630.

Urretxu (Goierri K.E.) • Ando-ain, Unamuno, Añarbe, Zaria, Oartzun. Tel: 943-720567.

NAFARROA

Altsasu (Mendigoizaleak) • Kapildui (Berrozi).

Iruñea (Nafarroa K.E.) • Elko-az, Erremendia, Jaurrieta zeharkaldia.

Iruñea (Gaztaroa) • Tendeñera (2.853 m). Tel: 948-143419.

Azaroak 4-5

ARABA


Laudio (Goikogane) • Markina, Baldaburu. Tel: 94-6725021.

BIZKAIA

Bilbo (Egunsentia) • San Miguel, Altxueta, Akier, Madoz. Tel: 609-417440.


Galdakao (Ganguren) • Sollube (684 m). Tel: 94-4562326.

bidaztiaren orriak



Izenburua: Orientación.
Egilea: Eusebio García.
Argitaletxea: Desnivel.
Orriak: 123. **Prezioa:** 1.700 pta. (68 lib)

Gida honek mapen ira-kurketa eta ipar-orratza nola erabili erakusten ditu batik bat, baina baita GPSa, altimetroa, koordi-natografoa eta bestelako tresneria erabiltzen ere, naturako zeinuen gidari-tza ahaztu gabe. Galduz gero zer egin, zenbait tri-kimailu... gida praktikoa.



Izenburua: El viejo expreso de la Patagonia. **Egilea:** Paul Theroux. **Argitaletxea:** Ediciones B. **Orriak:** 430. **Prezioa:** 2.700 pta (108 lib).

Paul Therouxek asmo bitxiari ekin zion 1976an: Amerika osoa trenez zeharkatzea, Bostondik Patagoniaraino. Bidean mila komeria izan zituen eta mila lagun ezagutu, Borges bera tartean. Horien guztien kontaki-zuna da Patagoniako espreso zaharra.



Izenburua: Guía turística de L'Ainsa. **Egilea:** Miguel Acín, Angel Cheliz, Jose Luis Acín. **Argitaletxea:** Prames. **Orriak:** 120 eta mapa bat. **Prezioa:** 1.500 pta (60 lib).

Ainsa-Sobrarbeko berri eman ondoren, inguru hartan egin daitezkeen ibilbide kultural eta turis-tikoak, kirol jarduerak eta mendi zein bizikleta ze-harkaldiak ezagutarazten ditu. Ibilbideak argi eta ze-hatz azalduak daude.



Leioa (Leioa M.T.) • Goiatz, Murumendi, Mandubia.
Meatzaldea (Meatzal-Fabrik) • Santa Olaia, Gurdietza (1.116 m). Goiz buelta.

GIPUZKOA

Aretxabaleta (Zaraia) • Oketa. Tel: 943-790334.

Donostia (C.V. Camping) • Goi-zueta, Arantza zeharkaldia. Tel: 943-428479.

Donostia (Ametzagaina-Xabier) • Aralar. Amezketza, Arritzagako meatzeak, Ganbo, Muitze.

Donostia (Antiguako Mendiza-leak) • Aratzeko zirkuitua. Tel: 943-211440.

Eibar (Klub Deportiboa) • Larunbatean Otzaurte, Aran-tzazu ibilbidea. Tel: 943-201904.

Hernani (Mendiriz Mendi) • Alleku (1.018 m). Tel: 943-332745.

Legazpia (Izadi Zaleak) • Umandia (Ilarduia). Tel: 646-629552.

Trintxerpe (Trintxer M.T.) • Beligaina (1.072 m). Tel: 943-390721.

Zumaia (Inda Mendi) • Urto, Ipuliño, Berastegi.

NAFARROA

Altsasu (Mendigoizaleak) • Larrun, Bera.

Elizondo (Batzango Mendizale-ak) • Auritz.

Iruñea (Gaztaroa) • Muela de Urbion (2.229 m). (Laguna Negra). Tel: 948-143419.

Lizarra (Lizarra M.T.) • Orde-sako Parke Naturala.

Sakana (Mendizaleak) • Saka-na ezagutuz. Dorrautik Etxa-rrira.

Sakana (Iratxo M.T.) • Bigezal, San Kiriko.

ikastaroak

Urriak 28/29

Donostia (Mendiak eta Herriak) • Harkaitz eskalada ikastaroa. Gaiak: hastapen ikastaroen jarraipena; bile-rak antolatu; hainbat luzera-ko eskaladako bideak. Tel: 948-513233.

Urriak 30, azaroak 2 eta 3

Hernani (Mendiriz Mendi) • Mendiko istripuei nola aurre egin ikasteko ikastaroa. Tal-dearen egoitza arratsaldeko 20:00etatik 21:30etara. Informazioa: 943-332745.

Azaroak 6, 7 eta 8

Donostia (C.V.Camping) • Mendiko eta naturako argaz-kigintza ikastaroa Jesus Mari Guiryo-ren eskutik. 20:00etatik 21:30era izango da ikastaroa taldearen egoi-tzan (San Marcial, 19). Infor-mazioa: 943-428479.

Azaroaren 13tik 17ra

Donostia (C.V.Camping) • Meteorologia ikastaroa. Egu-raldi iragarpenak, haizea eta, oro har, mendiko eguraldi aldaketei antzemateko ira-kaspenak. Gloria Latasa geo-grafoak emango du ikasta-roa. Astelehenetik ostiralaré 20:00etatik 21:30era. Infor-mazioa: 943-428479.

proiektzioak

Urriaren 27tik

Bilbo (Aldatz Gora) • David Atelak, Cumbres de Picos de Europa proiektzioa eskainiko du datorren asteartean, hilak 31, arratsaldeko 19:30ean. Taldearen egoitza izango da (Lojendio aita, 2).

Leioa (Leioa M.T.) • Mendiko Astearekin amaitzeko Joseba Egibarrek Euskal Herria: mendiak eta herriak ikus-entzunezkoa eskainiko du gaur iluntzeko 19:30ean Sabino Arana Aretoan.

erakusketak

Azaroaren 5a arte

Pasai Antxo (Kamio taberna) • Amaia Elozegi eta Esther Mugertzak Turkiatik Birma-niara bizikletan egin zuten bidaia oinarritzat hartuta, Asiakleta marrazki erakuske-ta prestatu dute Inaki Mar-tiarena Mattin-ek eta Amaia Elozegik berak. Hitzez lagun-dutako marrazkiak Kamio tabernan daude ikusgai.

lehiaketak

Azaroaren 6a arte

Amurrio (Mendiko Lagunak) • Mendiko eta naturako argaz-ki lehiaketa. Zuri-beltzean edo koloretan. Formato librea. 40x50 kartulina baten gainean ezarrita aurkeztuko dira argazkiak, atzean izen-burua eta egilearen datuak ipinita. Lanak helbide hone-tara bidali behar dira: Mendi-ko Lagunak (Postakutxa, 12) / 01470 - AMURRIO (Araba). Informazio gehiago: 945-393832.



Gipuzkoako helduen ibilaldia

■ Igande honetan, hilak 29, Gipuzkoako Mendizale Federazioaren ibilaldia izango da, Ordizian, Ordiziako Mendizaleek antolatuta. Ibilbidea bost bat ordukoa izango da, eta goizeko 08:00etan abiatuko da, Ordiziatik bertatik. Izen-ematea taldearen egoitza (Ordizia, 5) edo abiatu aurretik egin liteke. Informazioa: 943-805630.